

ELORRIAGA, Unai: *SPrako tranbia*.

Elkar argitaletxea, Donotia, 2001

Ainhoa AROZENA

Izugarrizko oihartzuna lortu du *SPrako tranbia* eleberriak, Unai Elorriaga idazle gazteak idatzitako lehen liburua, Espainiako Sari Nazionala eskuratu eta gero. Orain denbora gutxi eman du argitara bere bigarren lana, *Van't Hoffen ilea* eleberria, baina gatozen bere lehen eleberriaz hitz egitera.

Zahartze prozesua azaldu zigun Unai Elorriagak bere lehen eleberrian. Idazleak *Beterriko Liburua* aldizkarirako eginiko elkarrizketan adierazi zuenez, normaltzat hartzen du zahartzaroa. "Beti izan ditut inguruan pertsona zaharrak eta asko erakarri izan nau beti gai horrek. Gai misteriotsuak iruditzen zaizkit zaharrenak, eta gustura sentitzen hasi nintzen haien pentsamendu eta kontuen artean. Modu natural batean atera zait zahartzaroa lantzea, ezingo nuke gazteei buruz hitz egin".

Lucas protagonista ospitalean dagoela ematen dio idazleak hasiera eleberriari. Maria arreba izaten du lagun erietxeko gelan, orduak atseginago egin asmoz. Lucasek gazte garalko oroitzenak ditu gogoan, maite izan dituen pertsonak. Duela urte mordo hil zen bere emazte Rosaren zain izaten da eta Mariak bere jolasarekin jarraituz, bihar edo etzi etorriko dela esaten dio.

Ospitaletik etxeratzen direnean, sorpresa handi bat izango dute. Beren etxean mutil gazte ezezagun bat topatuko baitute gitarra jotzen, Marcos. Topiko guztiekin hautsiz, hirurak batera biziko dira une horretatik aurrera.

Bakoitzak bere ametsak ditu: Lucasek mendizaletasuna oso gogoko du eta 8000 metroko mendi garalekin egiten du amets.

Gaztea zenean, bere lagun Matiasek gidatzen zuen tranbian egindako bidaiak gogoratzen ditu, Rosa ezagutu zuen garaia eta baita Rosarekin egiten zituen irteerak ere. Mariari Ipuinak idaztea gustatzen zaio, gazte zeneko gertaerak gogoratzea, pentsatzea. Tren geltokira joan, tren bat hartu eta bidaiarien bizitza imajinatzea atsegin du. Marcos, musikaria da eta gai artistikoek erakartzen dute, enpresa batean lanean hasten bada ere. Kaleak gitarraren doinuekin alaitzea du gustuko eta modu horretan ezagutzen du Roma, bere neskalaguna izango dena. Bien arteko maitasun istorio biziak indar handia hartuko du eleberrian zehar, baina lau pertsonaia hauen artean sortutako komunikazioa da liburuaren funtsa. Bakoitza bere ingurukoa ulertzen saiatzen da; bakoitzaren ametsak posible egiten, ahal den heinean.

Marcos, egunetik egunera, orduan eta ahulago agertuko da eta ingurukoak azken egun horiek ahalik eta beteek eta atseginen izan dakizkion lortzen saiatuko dira.

Desirei eta ametsi garrantzia handia ematen zaie eleberrian. Egoerak, kasu batzuetan, surrealista badirudi ere, pertsonaien artean sortzen den goxotasunak erreala egiten du gaia.

Idazleak nahita idazkera xamurra bilatu ez badu ere, protagonisten tratamenduak tonu hori ematen dio eleberriari. Gaia, pertsonaien tratamendua, idazkera nahiz eleberriaren egitura, guztia ondo baino hobeto zaindu ditu Elorriagak bere lehen eleberrian.